

Euskal AEko esportazioak % 27,1 hazi ziren 2022ko otsailean, bigarren erregistro historiko onena

Joera hori hiru lurraldeetan gertatu da: Bizkaian (% 33,1), Gipuzkoan (% 28,2) eta Araban (% 18,5)

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.530,9 milioi euro) % 27,1eko igoera izan zuten 2022ko otsailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Esportazio-bolumen horren arabera, 2022ko otsaila da serie historikoko esportazio-bolumen handieneko bigarrena, 2021eko azaroaren ondoren (2.600,4 milioi). Esportazio ez-energetikoak % 24,6 igo ziren eta energetikoak % 104,7.

Inportazioak (2.161,7 milioi), berriz, % 50,8 hazi ziren, produktu energetikoen % 72,7ko eta ez-energetikoen % 45,5eko igoeraren ondorioz. Inportazioen kasuan ere otsailak du serieko zifrarik handiena, 2021eko azaroa (2.163,8 milioi) eta gero.

2022ko otsailean merkataritza-saldoa positiboa da berriz ere (369,3 milioi), eta 117,1eko estaldura-tasa ahalbidetzen du.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Otsaila 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Otsaila			Otsaila		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	1.991.576	2.530.944	27,1	1.433.336	2.161.689	50,8
ENERGIAZKO GAIAK	62.774	128.513	104,7	279.599	482.919	72,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	1.928.801	2.402.432	24,6	1.153.737	1.678.770	45,5
URTEKO METATUA	3.716.208	4.772.084	28,4	2.795.413	4.174.441	49,3
ENERGIAZKO GAIAK	134.810	295.355	119,1	552.163	925.408	67,6
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	3.581.398	4.476.729	25,0	2.243.250	3.249.034	44,8
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	623.807	739.167	18,5	346.011	503.745	45,6
URTEKO METATUA	1.175.793	1.475.379	25,5	638.474	943.899	47,8
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	778.010	1.035.505	33,1	742.516	1.198.925	61,5
URTEKO METATUA	1.448.195	1.935.844	33,7	1.499.552	2.366.787	57,8
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	589.760	756.272	28,2	344.809	459.020	33,1
URTEKO METATUA	1.092.220	1.360.860	24,6	657.386	863.756	31,4

Data 2022ko Apirilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hiru lurralde historikoek hazkunde-tasa positiboak izan dituzte eta hazkunde-ehunekoak izan dituzte: Araban % 18,5, Gipuzkoan % 28,2 eta Bizkaian % 33,1. Esportazio ez-energetikoak % 18,4 hazi dira Araban, % 28,2 Gipuzkoan eta % 26,9 Bizkaian. Esportazio energetikoak are gehiago hazi dira, eta Bizkaian % 105,1era iritsi dira.

Araban, esportazioak ondokoetan kontzentratzen dira: “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 82,8), “*Plastikoak, kautxuak eta haien manufakturak*” (% 55,4), “*Material, makina eta aparatu elektrikoak*” (% 35,8) eta, batez ere, “*Garraio-materialak*” (guztizkoaren % 52,4), nahiz eta % 1,4 jaitsi den, lau hilabete garrantzitsuenak aipatzearren.

Gipuzkoan, hazi egin dira ondokoien salmentak: “*Material, makina eta aparatu elektrikoak*” (% 9,7), “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 31,4) eta “*Garraio-materialak*” (% 49,2); arantzel-sekzio aipagarrienak dira.

Bizkaian, gora egin dute ondokoien esportazioek: “*Material, makina eta aparatu elektrikoak*” (% 8,9), “*Garraio-materiala*” (% 33,6), “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 38,7) eta, batez ere, “*Produktu mineral eta energetikoetan*” (% 99,5).

2022ko otsailean, bost herrialde (Frantzia, Alemania, Herbehereak, Estatu Batuak eta Erresuma Batua) dira Euskal AEko bezero nagusiak, esportatutako guztiaren % 51,5 (1.302,6 milioi) hartzen baitute. . Horietako hiru 27-EBkoak dira, eta erakunde horrek % 66,4 biltzen du; ehuneko hori % 72,5ekoa izango zatekeen 28-EB zaharraren kasuan.

Belgikara egindako esportazioak % 5,6 hazi dira, Erresuma Batura % 0,3, Frantziara % 27,9, Italiara % 35,7, Alemaniara % 11,6, Portugalera % 58,4 eta Herbehereetara % 206,2. Hilabete horretan, Estatu Batuetara egindako salmentak % 66,5 hazi dira, baita Turkiara (% 39,9) eta Txinara (% 69,2) egindakoak ere. Errusiara bideratutakoak % 47,5 jaitsi dira.

Inportazioen ia erdiak 27-EBkoak izan dira (% 49,7) eta 28-EBkoak % 58,9ra iritsiko ziren. Europako herrialde garrantzitsuenen artean Erresuma Batua (% 127,4), Herbehereak (% 87,1), Belgika (% 25,4), Alemania (% 39,3), Frantzia (% 39,2) eta Italia (% 28,4) nabarmendu dira. Munduko gainerako lurraldeak aztertuz gero, ikusiko dugu Nigerian (% 20.405,6), Estatu Batuetan (% 54,7), Errusian (% 37,2) eta Txinan (% 67,3) jatorria duten inportazioak ere gehitu egin direla. Mexikoren kasuan, % 73,7ko atzerakada izan da.

2022ko otsailean merkaturatutako produktuak

Xehetasunetara jaitsiz, 2022ko otsailean, hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 38,6 kontzentratu zuten, 973,1 milioi euroko balio bateratuarekin.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2022

	2021	2022	2022	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	1.991.576	2.530.944	100	27,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	140.361	179.772	7,1	28,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	217.777	159.878	6,3	-26,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	147.502	159.463	6,3	8,1
Petrolioaren olio finduak	49.007	115.309	4,6	135,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	80.752	111.883	4,4	38,6
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	39.652	56.431	2,2	42,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	51.945	53.986	2,1	3,9
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueta	0	49.274	1,9	-
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	27.981	43.701	1,7	56,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	25.803	43.396	1,7	68,2
Erabilera tekniko industrialetarako kolpeak eta olioak (animalia- edo landare-)	15.874	39.516	1,6	148,9
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	18.569	31.801	1,3	71,3
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	20.678	30.785	1,2	48,9
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazaturak	29.525	30.188	1,2	2,2
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	29.796	29.811	1,2	0,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	17.968	29.045	1,1	61,7
Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak...	18.246	26.319	1,0	44,2
Landu gabeko aluminioa	13.118	26.081	1,0	98,8
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketa	12.964	23.114	0,9	78,3
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoak kableak	17.684	22.555	0,9	27,5
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu plano ijeztuak, txapatu edo estali gabekoak < 600 mm	7.350	21.560	0,9	193,3
Xafilen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	15.003	20.863	0,8	39,1
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	10.395	19.963	0,8	92,1
Ardoa, mahats freskoarena	16.193	19.205	0,8	18,6
Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm	8.637	18.967	0,7	119,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Apirilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Nabarmentzekoak dira, besteak beste, honako hauen igoerak: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 135,3 eta 66,3 milioi gehiago aurreko urteko hil berean baino), “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” (% 28,1 eta 179,8 milioi esportatu dira), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 38,6 eta 111,9 milioi) eta “*Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (% 8,1 eta 159,5 milioi); hala ere “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” atzera egin dute % 26,6 (159,9 milioi esportatu dira). Hilabete horretan, azpimarratzekoa da, halaber, “*Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueta*” esportazioak izan duen gorakada nabarmena (49,3 milioi).

Ranking esportatzailearen lehen 25 posizioen artean, turismoen partida horrek bakarrik erregistratu du hazkunde-tasa negatiboa.

Inportazioen kasuan, eta arantzel-partiden kasuan, pisu espezifiko handienekoak, “*Petrolio edo mineral bituminosoen olio gordinak*” (guztizkoaren % 17,1) % 103,1eko hazkundea izan du, 2021eko otsailean baino 187,6 milioi gehiago, guztira 369,5 milioi inportatu baititu: 147,2 milioi Erresuma Batukoak, 116,7 Errusiakoak, 82,9 Nigeriakoak, 12,2 Norvegiakoak eta 10,5 milioi Mexikokoak. Joera positibo hori bat dator 25 arantzel-partida inportatzaile nagusiekin. Horien artean, nabarmentzekoak dira “*Petrolio-gasa eta gasezko gainerako hidrokarburoen*” hazkundea (% 680,3, 110 milioi inportatu baitira), ia erabat Ekuatore Gineatik datorren gas naturala (109,9 milioi) itsasoz. Nabarmentzekoak dira, halaber, honako hauen igoera: “*Metagailu elektrikoak eta haien zatiak*” (% 317,4, 28,1 milioirekin), “*Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm*” (% 183,3 eta 80 milioi), “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu ijeztuak, txapatuak edo estaliak > 599 mm*” (% 157,8 eta 29,9 milioi), eta “*Sojababak, baita hautsiak ere*” (% 93,1 eta 38,5 milioi).

ARABA. Esportazioak 2022ko otsailean

Arabako Lurralde Historikotik egindako esportazioak % 18,5 hazi dira aurreko urtearen aldean. Hamar partida nagusietatik, guztizkoaren % 68,9 hartzen dutenak, hazkunde-tasa negatiboa baino ez da erregistratu, “10 pertsona baino gutxiagoko turismoetan” (-%26,0); gainerakoak positiboan daude, eta nabarmentzekoak dira “Automobilentzako zati eta osagarriak” (% 134,3 eta 51,7 milioi esportatu dira) eta “Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak” (% 201,4 eta 34,2 milioi).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2022

	2021	2022	2022	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	623.807	739.167	100	18,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	147.157	158.252	21,4	7,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	212.990	157.537	21,3	-26,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	22.087	51.743	7,0	134,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	19.877	35.948	4,9	80,8
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	11.360	34.240	4,6	201,4
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	11.543	19.796	2,7	71,5
Ardoa, mahats freskoarena	14.156	17.488	2,4	23,5
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaerako euskarriak	4.627	13.571	1,8	193,3
Metal arruntzeko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	5.670	11.870	1,6	109,4
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	7.605	9.014	1,2	18,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Apirilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2022ko otsailean

Bizkaian esportazioek % 33,1 egin dute gora, eta hazkunde-tasa positiboak dituzte 10 partida nagusiek (guztizkoaren % 42,7). Horien artean, nabarmentzekoak dira “Petrolioaren olio finduak” (% 135,8 igo dira, aurreko urtean baino 65,5 milioi gehiago), “Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)” (% 148,9 eta 39,5 milioi esportatu dira), “Produktu lau laminatuak, burdinazkoak edo altzairuzkoak aleatu, xaflatu eta estali gabe < 600 mm” (% 182,0), “Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm” (% 124,2) eta “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 24,8 eta 75,5 milioi esportatu dira).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2022

	2021	2022	2022	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	778.010	1.035.335	100	33,1
Petrolioaren olio finduak	48.252	113.796	11,0	135,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	60.503	75.531	7,3	24,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	60.372	66.350	6,4	9,9
Erabileraren tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	15.873	39.516	3,8	148,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	22.931	32.821	3,2	43,1
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	27.014	27.091	2,6	0,3
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	19.020	26.296	2,5	38,3
Landu gabeko aluminioa	11.368	22.318	2,2	96,3
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu plano ijaztuak, txapatu edo estali gabekoak < 600 mm	7.134	20.118	1,9	182,0
Berotan ijaztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm	8.193	18.366	1,8	124,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Apirilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2022ko otsailean

Gipuzkoak bi partida ditu negatiboan lehenengo 10 partiden artean, eta, horietatik, nabarmentzekoa da “*Trenbideetarako ibilgailuen zatiak edo antzekoak*”, % 39,6ko jaitsierarekin guztira igorritako 12,4 milioien kasuan.

Joera positibo nabarmena erakusten dute, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, honako hauek: “*Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstsuetarako*”, 49,3 milioi, 2021eko otsailean partida horretan esportaziorik ez zegoela kontuan hartuta (nahiz eta 2020ko hil berean 22,4 milioiokoa izan), “*Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak*” (% 39,9 eta 52,5 milioi euro), eta “*Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako*” (% 35,2 eta 40,7 milioi saldu ziren).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2022

	2021	2022	2022	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	589.760	756.105	100	28,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	57.903	61.678	8,2	6,5
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	37.486	52.456	6,9	39,9
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstsuetarako	0	49.274	6,5	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	30.142	40.749	5,4	35,2
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	16.362	21.367	2,8	30,6
Metal arruntezko giltzarro, sarraila, morrolo eta giltzak	13.672	17.104	2,3	25,1
Iztukatu eta estali gabeko papera eta kartoia, helburu grafikoein, bobinetan edo zulatzeko orri eta zintetan	8.430	14.275	1,9	69,3
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazaturak	14.668	13.149	1,7	-10,4
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak....	6.327	13.113	1,7	107,3
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	20.589	12.432	1,6	-39,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Apirilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

URTEKO METATUA (2022KO BI LEHEN HILABETEAK): kanpoko saldoak 597,6 milioi euroko superabita du eta estaldura-tasa % 114,3koa da

2022ko lehenengo bi hilabeteetan eta Euskal AEko esportazioetan, % 28,4ko hazkundera izan da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 1005,9 milioi euro gehiago. Aldi horretako esportazio-zenbatekoa 4.772,1 milioikoa da, eta kopuru horretarako ekarpenik handiena Bizkaiak egin du 1.935,8 milioirekin (guztizkoaren % 40,6), ondoren Arabak 1.475,4 milioirekin eta azkenik Gipuzkoak 1.360,9 milioirekin.

Bizkaiko esportazioak dira Euskal AEko garrantzitsuenak, eta, gainera, urte arteko hazkunderik handiena izan dute, 2021ean baino 487,6 milioi gehiago eta % 33,7ko hazkunde erlatiboa. Araban % 25,5 hazi da (299,6 milioi gehiago) eta Gipuzkoan % 24,6 (268,6 milioi). Esportatutako produktu-mota kontuan hartuta, egiaztatu da hazkundeak izan dituztela esportazioek, hala "Produktu energetikoenak" (160,5 milioi gehiago) nola "Produktu ez-energetikoenak" (895,3 milioi gehiago), 2021ean hil horretarako metatutakoa baino.


2022ko lehen bi hilabeteetan gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 41,8 biltzen dute, 1.986,6 milioiko zenbatekoarekin. Hamar produktu horietako batek bakarrik egiten du atzera 2021eko aldi beraren aldean; "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" dira, eta % 3,3 jaitsi arren, Euskal AEko esportazio-bolumen handieneko partida izaten jarraitzen dute. Gehien hazi diren produktuen artean, honako hauek nabarmentzen dira: "Petrolioaren olio finduak" (% 130 eta 151,5 milioi euro gehiago esportatu dira), % 34,9, euroen ordeztuak esportatuak kontuan hartzen badira, eta "Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)" (% 135,8 eta 43,4 milioi euro gehiago). Zerrenda honetako gainerako produktuei dagokienez, aurrerapenak ondoko portzentaje hauen artean dabilta: % 11,6 (10,4 milioi gehiago) "Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako" eta % 67,8 (22,5 milioi gehiago) "Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak". Kontuan hartu beharreko beste gehikuntza batzuk honako hauek izan dituzte: "Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak", "0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak" eta "Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak", % 60,7ko, % 58,9ko eta % 51,1eko aldakuntza positiboekin, hurrenez hurren.

2022ko bi hilabete horietako ranking esportatzailearen arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztiaren % 16,4rekin. Alemaniaren atzetik Frantzia (% 15,7), Estatu Batuak (% 7,2), Herbehereak (% 6,8) eta Erresuma Batua (% 6,0) daude, bost herrialdeen artean esportazioen % 52,2 bilduz.

Euskal AE osorako **inportazioen** metatua, aztertutako aldian, 4.174,4 milioi euro ingurukoa da. Urte arteko kopuru hori alderatuz gero, ikusten da 1.379 milioitan gaintitzen duela 2021eko aldi berean erregistratutakoa. % 49,3ko igoera horren arrazoa da, hein handi batean, Bizkaian (2.366,8 milioiko inportazioekin) % 57,8ko hazkundera gertatu dela aldi horretan, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 867,2 milioi gehiago. Inportazioek ere aurrera egin dute Araban (% 47,8 balio erlatibotan eta 305,4 milioi euro gehiago salduta) eta Gipuzkoan (% 31,4 eta 206,4 milioi euro gehiago); inportatutakoaren balioa 943,9 eta 863,8 milioi eurora iritsi da, hurrenez hurren. Produktu energetikoen inportazioa aurreko urteko aldi berekoa baino % 67,6 handiagoa izan zen, eta produktu ez-energetikoenak, berriz, % 44,8koa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022ko lehen bi hilabeteetan, 597,6 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa positiboa izatea ahalbidetzen du, % 114,3koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Itunria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62